

CORRADO MACCARINELLI

Oihane Gurrutxaga Luengo

Legazpi

Corrado Maccarinelli italiarra zen. Piamonteko gaztea, Frantzia eta Italiako milaka langileren antzera, Euskal Herrira etorri zen sorlekua utzita; atzerriko teknologia erabiliz, 1858az gero, Espainiako iparraldean Norteko Ferrokarrila eraikitzen aritu ziren. Gipuzkoa eta Nafarroako zatiari dagokionez, orografiak asko zaildu zuen lana; esate baterako, Beasain eta Altsasu bitartean hamahiru tunel zulatu behar izan zituzten. Langintza neketsu honetan aditu ziren hizkuntza eta ohitura desberdinak zituzten mutil hauek. Lantokiaren inguruan eraikitako txabola ilun eta zikinetan bizi ziren. Lanordu amaigabeetan, asteko sei egunetan lan egiten zuten, zazpigarren egunean, hots, igandean, libratuz.

Atzerriko langileek, tunela zulatzen pasatako ordu luze eta aspergarriak ahazteko, atsedean ere hartzen zuten jenez eta, bereziki, gehiegitxo edanez. Gertuko baserrietako neska ezkongabeek eramaten zizkieten babarrun eta jakiari esker irauten zuten bizirik, horrenbeste lan egin ondoren ez

baitzuten sukaldean aritzeko gogo handirik izaten. Aizpuruko Maritxuk ere tarteka-marteka langile hauengana jotzen zuen etxerako horren beharrezko ziren sosak lortze aldera. Maritxu gazte eta liraina ez ezik, bromazalea eta alaia ere bazen; dantza eta musika gustuko zituenez gero, atentzioa eman zion berak sekula ikusi eta entzun gabeko instrumentua jotzen zuen beharginak. Hala ere, mutila aurreratu zitzaion:

–Nola duzu izena? –galdetu zion mutilak italiarazko kutsua zuen gaztelania trakets batean.

–Maritxu. Maritxu da nire izena –erantzun zion neskak are gaztelania traketsagoan.

–Il tuo nome è bello, bellissimo. Ni Corrado deitzen naiz, Corrado Maccarinelli.

–Corrado? Izen hori ez da gurean arrunta; jo berri duzun musika tresna ere ez.

–Soinua da, soinu txikia. Guk diatonikoa deitzen diogu.

–Botoi bat falta zaio, ordea.

–Honanzko bidean galdu nuen.

–Nongoa zara ba zu?

–Piamontekoa.

–Piamonte?

–Lurralde menditsua da. Badu Euskal Herriarekin antzik, nahiz eta hango mendiak askoz ere altuagoak diren. Hortik datorrigu mendiak zulatzekeo grina.

–Hortaz, aspertuta zaudetenean mendiak zultzeari ekiten diozue...

–Zer erremedio, jango badugu. Piamonteko

mendi guztiak zulatu ostean, hemengoak zulatuko ditugu.

–Joko al duzu piezaren bat?

–Bai, ???????. *Bela monfrinòta* deitzen da.

Sun truvame na munfrinota

la pì bela dal pais

Chila a dis, chila a dis, chila a dis, chila a dis,

chila a dis ca veul mariesse

Si la guardi bin an facia

l'ha la barba cui barbìs

Lalalà la la la laala, Lalalà la la lalà

Lalalà la la la laala, Lalalà la la lalà

(Monferratoko neska bat aurkitu dut

Herrialdeko ederrena da

Esaten du, esaten du, esaten du, esaten du,

Esaten du ezkondu nahi duela

Aurpegira ondo begiratzen badiot

Bizarra eta bibotea ditu)

Egunak joan eta egunak etorri, bien arteko harremana sendotzen joan zen. Hilabete batzuen buruan, elkarrekin irteten hasi ziren, Maritxuren gurasoak alabak mutil-lagun atzerritarra aurkitu izanak asko poztu ez bazituen ere. Igande goiz batean, beste zereginik ezean, Corrado Tunelaunditik herrira jaitsi zen. Lantoki astun eta gogaikarria atzean utzi eta, ahal zuen txukunen jantzita, goitik behera arin jaitsi zen, harik eta Maritxurekin herrian topo egin zuen arte.

Bero eginagatik, eguraldi atsegina zegoen; abuztuko eguzkiak gogor jotzen zuen. Herriko ostatutik dena argi eta garbi ikusten zen: hegoaldean, bere nagusitasuna azalduz, kareharrizko mendilerroa gailentzen zen. Ezinbestean, bere sorterriarekin gogoratu zen Corrado. Nola udaletxearen aurrean hala arkupe inguruan, zaharrak eta gazteak jai giroan zebiltzan. Kalearen beste aldean, eliza ez zen urruti; sarrera nagusiaren goialdean, teilatuaren ertzean, erloju zuri biribil bat ikusgai zegoen. Bihurri aurpegiko haurrak iturriaren inguruan jostatzen ziren, etengabe abestiak kantatuz. Dagoeneko euskaraz pixka bat egiten zuen eta hurrek zera ziotela ohartu zen:

Kuku miku
Anda miku
Txantxa perro
Kastellano
Plon plon ikusie
Lerdie
Lau txarra
Lerdie
Puskarrena
Pus
Ladron

–Haurrak zertan ari dira, Maritxu?

–Zotz egiten ari dira. Euretako bat aukeratzen ari dira zerbait egin dezan.

–Azken batean, edonon, haur guztiek ohitura bertsuak dituzte.

–Goazen plaza aldera Corrado, aurki izango da zure txanda.

Uda-beteko festa alaitzeko bailarako musikari ospetsuenak bildu ziren. Horietako batzuk txistua jotzen abilak, eta albokariak zein baino zein trebe-agoak. Jendeak muturra okertu zuen atzerritarra kiosko gainera igo zenean. Italiar soinu-jolea ikusita zur eta lur gelditu zen jendea. Musika-tresna erabat ezezaguna zen hura: hogeita hiru botoi zituen eskuinaldean eta baxuak, egurrezko hamabi botoi, ezkerraldean. Deigarria zen soinuaren jatorriaren berri ematen zuen apaingarria: “G” bat ageri zen erdi-erdian, eta honen barruan “F” tankerako bat; hizki hauen bueltan, berriz, loretxo zuri batzuk. Instrumentuaren bi aldeak elkartzeko hauspo bat zuen erdialdean. Hatzen bizkortasunak eta hauspoaren mugimendu azkarrak sortzen zuten musika; musika alai eta erakargarria, alajaina! Corradok, berehala jarri zituen inguruko guztiak dantzan. Jendearen hasierako jarrera mesfidatia abegikorra bihurtu zen.

Jendea erruz hurbildu zitzaion zoriontzera. Azalpen eta argibideak ematen zituen bitartean, soinua kioskoaren ondoan utzi zuen. Berandu gabe itzuli zen kioskora; hala ere, ez zegoen musika tresnaren arrastorik. Corradoren larriduraz ohartuta, Maritxu inguratu zitzaion zer gertatzen zen jakiteko asmoz. Hurrean zebilen aguazilari lapurretaren berri ematea erabaki zuten.

–Pentsatzen jarrita... mendiaren beste aldean dagoen gertueneko herrian erromeria izango da

bihar. Nik joan eta probatu egingo nuke; ahalegin-
du behintzat... –bota zuen aguazilak.

–Nola arraio pasatuko gara menditzar horreta-
tik? –gehitu zuen Corradok.

–Ez kezkatu horregatik. Maritxuk ondo baino
hobeto ezagutzen duen kobazulo bat aldenik alde
gurutzatuta mendia samur igaro daiteke.

Aguazilak esandakoari kasu eginez, biharamune-
an goizean goiz abiatu ziren. Aldapa gogorra zen
eta atsedean hartzea erabaki zuten.

–Non gaude?

–Elurretako Ama Birjinaren ermita parean. Elur-
ekaitza dagoenean, Amabirjinaren irudia kanpora
atera ohi da kalterik sor ez dadin.

–Apaizen gezurrak dira horiek. Ez duzu ba
horretan sinetsiko?

–Sinistu, sinistu... zerbaitetan sinistu beharra
dago.

Corradok erantzuteko astirik ere ez zuen hartu.
Bat-batean, aurrez aurre, mendilerroaren gainean
etxafuego bat balitz bezalaxe suzko bola bat pasatu
zen mendebaldetik ekialdera.

–Han! Anbotoko Dama badator. –esan zuen
Maritxuk.

Presa zeukaten eta aurrera jarraitzea pentsatu
zuten. Dena den, neskak, mutilaren jakin-mina
asetzearren, Anbotoko Damaren kondaira kontatu
zion; eguneko ordu guztietan bere burua orrazten
jarduteagatik amak madarikazioa bota eta, harrez-
kero, kobazulo batean bititza suertatu zitzaion
neskatxaren istorio tristea.

Aise pasatu zen denbora eta konturatzerako, tenplarioen gurutzea harrian zizelkatua zuen ermita baten ondotik igaro ziren. Erromesen galtzada zaharrean gora, Corrado zur eta lur geratu zen. Sigi-saga labur bat eginez, kobazuloaren muturre-raino heltzen zen galtzada. Enara talde handi bat kobazulotik sartu-irtenean zebilen. Kobazulo barruan, harritz eta egurrez eginiko etxearen aurrealdean, Mikeleteak zeuden; firme eta beren lana betetzeko prest. Txapelgorriek nondik nora zebiltzan galdetu zieten.

–Zer egiten dun hemen? –galdegin zuen etxe barrutik atera zen gizon gazte eta gizen samar batek.

–Lapurtutako zerbaiten bila ari gaituk.

Goizean goiz mando gainean zihoan atzerritar itxurako gizon bat gerarazi zutela argitu zien Maritxuren auzoak; baina zegokion zerga ordainduz arazorik gabe igaro omen zen.

Mikelete etxearen ondoko harrizko arku zorrotzaren azpitik pasatu eta kobazulora sartu ziren. Kanpoko berotasunetik ihesi, kobazuloaren freskuran hainbat behi lodi etzanda zeuden. Haitzuloan aurrera egin ahala, harkaitzak zoruaekin bat egingo zuela zirudien, azpitik pasatzeko gero eta tarte txikiagoa utziz. Corradori sabaitik ur tanta hotz bat erori zitzaion; makurtu egin behar izan zuten leku heze eta ilun hartatik kanpora irteteko.

Ez zegoen galerarik; galtzada zaharraren harritzar zuriak pagadian murgiltzen ziren. Kostata, gaina harrapatu zuten. Euren aurrean lautada

handi bat zabaldu zen; gari eta garagar soro artean hainbat herri txiki ikus zitezkeen han eta hemen.

Bidaiaren nekeak eraginda, soinua berreskuratzekeo asmoz egindako ahaleginaren aurrean damutzen hasita zeuden. Edozein moduz ere, ezin zuten etsi. Birrindutako gaztelutxo bat gainean zuen tontorra inguratu behar izan zuten. Nahiz eta leku malkarra izan, artalde bat zebilen bertan. Eskuak lurrean jarri behar izan zituzten eror ez zitezten. Halako batean, txakur baten zaunka-hotsa entzun zuten; seguruenik artaldea zaintzen ari zenarena. Metro batzuk egin orduko, mando bat ikusi zuten ez aurrera eta ez atzera, geldirik, harrien arteko belarra jaten, ezer pasako ez balitz bezala. Animalia leize baten ertzean zegoen, eta bertan, amilduta, mandazaina. Txakur aztoratuak bikotea gizona zegoen tokiraino eraman zuen. Hilik zegoen. Ezbairik gabe, labaindu eta leizera eroriko zen.

–Mandoa jaitsi eta bertan igota eramango dugu. –proposatu zuen Maritxuk.

–Itxaron, itxaron... nik gizon hau ezagutzen dut; Luca da baina! Nire lankidea!

Mandoak bizkar gainean zeraman banasta zabaldu egin zuten. Hantxe zegoen Corradoren altxor preziatu, botoia falta zuen soinua, hain zuzen ere. Gizonaren gorputza mandoaren gainera jaso eta kobara itzuli ziren.